

"LA CAIXA" ERAKUNDEAREN BEKAK, 2020ko DEIALDIKOAK DOKTOREGO IKASKETAK EGITEKO ESPAINIAKO UNIBERTSITATEETAN

Deialdiaren ezaugarriak:

"La Caixa" Gizarte Ekintzak **30 beka** eskainiko ditu, jakintza arlo guztietara irekita, doktorego tesiaren irakurketarekin amaituko diren doktorego ikasketa ofizialak Espainiako edo Portugaleko edozein unibertsitate edo ikerketa-zentrotan egiteko.

UPV/EHUren eskaintza ondoko estekan dago kontsulta-gai:

<https://www.ehu.eus/es/web/estudiosdeposgrado-graduondokoikasketak/doktorego-eskaintza>

Beken ezaugarriak:

- Guztira, diru kopurua 122.592 eurotakoa izango da, 34.800 euro hiru urtetan banatuta, 3.564 euro urtean konferentzia, ikastaro, egonaldi eta abarretarako, eta 7.500 eurotako saria laugarren urtean, baldin eta bekadunak tesia bekaren hirugarren urtea bukatu eta hurrengo 6 hilabeteetan aurkezten badu.
- Beken gehienezko iraupena hiru urtetakoa da, urtez urte luza daitezkeenak.
- Bekadunek 2020ko irail eta urri bitartean egon beharko dute helburuko unibertsitateetan.

Eskatzaileek bete beharreko baldintzak:

- Doktoregoko programa ofiziala egiteko ahalmena egiten duen goi mailako titulua izatea.
- Eskatu diren doktorego ikasketetan lehenago matrikulatuta ez egotea.
- Ingeles maila egiaztatzea, deialdiko oinarrietan onartutako ziurtagirietako bat aurkeztuta.
- Ikertzaile esperientziako lehenengo lau urteetan egotea eta aurrez doktore gradu lortu ez edo berau lortzeko baldintzetan ez egotea.
- Deialdia itxi eta aurreko 3 urteetan zehar 12 hilabete baino gehiago bizi izatea Espainian, edo jarduera nagusia bertan garatu izatea.
- Doktoregoa aurrez gradua edo lizentziatura ikasketak egin ez diren unibertsitate edo ikerketa-zentro batetan egitea.

Eskaerak aurkezteko epea:

Epea **2020ko otsailaren 26ko 14:00etan** amaituko da (penintsulako ordua).

Eskaera nola egin:

Eskaera **Internet** bidez egin beharko dute eskatzaileek, horretarako dagoen aplikazioaren bidez:

<https://www.lacaixafellowships.org/index.aspx>

UPV/EHUn bete beharreko prozedura:

UPV/EHUK kontratuak egingo ditu UPV/EHUKo doktorego programetako tesi zuzendariak dituzten onuradunekin, **ez beste inorekin. Eskatzaileen eginbeharra da beren zuzendariak baldintza hori betetzen dutela ziurtatzea.** Programa bakoitzari atxikitako irakasleen zerrenda esteka honetan ikus daiteke:

<https://www.ehu.eus/es/web/estudiosdeposgrado-graduondokoikasketak/doktorego-eskaintza>

Ildo beretik, UPV/EHUK **kontratuak egingo ditu unibertsitateko sail edo institutu bati atxikiko diren pertsonekin, ez beste inorekin.**

UPV/EHUri atxiki nahi duten eskatzaileek **halaxe adierazi beharko dute eskaera aurkeztean,** eta eskaera behar bezala beteta bidali beharko dute pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbidera, mezuaren gaian "La Caixa bekak" jarrita.

Era berean, adierazi beharko dute zein ikertalderi atxiki nahi duten eta nor den proposatutako tesiaren zuzendaria.

La Caixa Fundazioaren kontaktua:

Helbide elektronikoa: becas@fundacionlacaixa.org

Informazio gehiagorako:

<https://obrasociallacaixa.org/es/investigacion-y-becas/programa-de-becas-de-posgrado/inphinit/retaining>